



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



MEMORIA 2021-2022 IKASTURTEA



www.mondragon.edu/huhezi



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**





Aurkibidea

SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA	4
TXOSTEN AKADEMIKOA	10
a. Graduak	11
b. Unibertsitate masterrak	12
c. Graduondokoak: aditu tituluak eta espezializazio diplomak	13
d. Etengabeko prestakuntza	14
e. Ikerketa eta transferentzia:	15
i. Ikerketa	15
ii. Transferentzia eta aholkularitza	17
iii. Argitalpenak eta zabalkundea	19
iv. Hirugarren zikloa: doktorego programa	19
EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA	20
KUDEAKETA ORGANOAK	22
FAKULTATEKO LANGILEAK	23

SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA





Memoria honetan, 2021-2022 ikasturtearen laburpena jaso dugu. Laburpena diogu; izan ere, badakigu hemen jasotzen den baino askoz gehiago egiten dugula. Eta, jasotzeaz gain, guretzat garrantzitsua da zergatik eta nola egiten dugun. Egunerokoan Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)osatzen dugunok erakusten dugun pasioa, inplikazioa eta konpromisoa ikasturtean ez ezik ikasturte batetik bestera ere islatzen da, eta horri esker izan dugu aurten ere uzta ederra! Horregatik, eta ezer baino lehen, zorionak eta eskerrik asko HUHEZIKo kide guztioi!

Laburpenera etorrira, 2021-2022 ikasturtetako zenbait arlotako gertakizun nabarmenenak jasoko ditugu hurrengo lerrootan.

Arlo akademikoari dagokionez, aurrez aurreko gradu ikasketetan, Lehen Hezkuntzako gradu-ko Berrikuntza Digitala ibilbideko taldea hasi da lehenengo aldiz, Bilbao AS Fabrik-en. Hala, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Humanitate Digital Globaletan, 1.025 ikasle izan ditugu guztira. Aurten ere, bigarren graduak edo aipamenak eta gradu osoa online egiteko aukera eskaini da Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetan. Guztira, modalitate erdi-presentzialean, 220 ikasle izan ditugu.

IKASLEAK:
GRADU
MODALITATE GUZTIAK

1.025

MODALITATE
ERDI-PRESENTZIALEKO
IKASLEAK

220

Unibertsitate masterren arloan, 2020-2021 ikasturtean, 217 ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskaini dituen hiru unibertsitate masterretan. Aurten, DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterraren 13. edizioari ekin diogu –bi modalitatetan: duala eta erdi-presentziala–. TeamLabs-ekin elkarlanean eskaintzen ditugun Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterraren (Lit) 3. edizioa jarri dugu abian, baita Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterraren (MCOOP) 2. edizioa ere.

Etengabeko prestakuntzan, gero eta programa gehiago eskaintzen ari gara Fakultatean. 2021-2022 ikasturtean, 7 programa eskaini ditugu, eta 174 profesional izan ditugu gure artean. Eskaintako programa horietako hainbat, gainera, elkarlanean eskaini ditugu, OlatuKoop, BCC, MGEP, Reimagine Education Lab edo TeamLabs-ekin batera. Hauexek izan dira 2021-2022 ikasturtean eskaintako programak: Kooperatibagintzan unibertsitate aditu titulua (14. edizioa), Herrigintzaren Berrikuntzan unibertsitate aditu titulua (3. edizioa), KoopFabrika: Ekintzailetza Sozial Kooperatiboko eta Ekonomia Sozialeko unibertsitate aditu titulua (6. edizioa), Hezkuntza Kooperatiboan unibertsitate aditu titulua (Brasilgo Conexão Mundo programaren barruan) (2. edizioa), Prestakuntza Pedagogikoa Gastronomia eta Ostalaritza Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat unibertsitate aditu titulua (Brasilgo Conexão Mundo programaren barruan) (1. edizioa), Prestakuntza Pedagogikoa Ingurumen, Jasangarritasun eta Energien Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat unibertsitate aditu titulua (Brasilgo Conexão Mundo programaren barruan) (1. edizioa), Chief Learning Officer (CLO)-Erakundeetako Ikaskuntzaren Kudeaketan espezializazio diploma (2. edizioa). Bestalde, kooperatibismoarekin lotuta, guztira, 82 formakuntza saio egin dira, eta 1.280 ikaslek hartu dute parte. Hezkuntzari dagokionez, hainbat ikastaro labur eskaini, eta ikastetxe eta erakundeek eskatutako hainbat prestakuntza bideratu ditugu. Guztira, 4.138 parte-hartzaile bildu ditugu ekintza horietan.

Hirugarren ziklora begira, aipatzekoa da doktorego programaren barruan oinarritzko ikerketa prestakuntza eskaini dela lehenengo aldiz eta 3 doktoregaik hartu dutela parte. 2021-2022 ikasturtean, 24 doktoregai matrikulatu eta bi tesi aurkeztu dira.

Ikasleen mugikortasuna pandemia aurreko kopuruetara itzuli da; hala, 2021-2022 ikasturtean, 77 ikasle joan dira atzerrira, eta 16 ikasle Espainiako estatura. Praktikei dagokionez, 85 ikaslek Espainiako estatuan egin dituzte praktikak, eta 19k atzerrian. Baina ez hori bakarrik, gradu bukarako lana ere atzerrian egin dute 5 ikaslek. Incoming ikasleei dagokionez, atzerriko 13 ikasle etorri dira gure nazioarteko programetara.



Ikerketaren arloan, aipatzekoa da Fakultateko ikertzaileek zenbait deialdi konpetitibotan lortutako proiektu kopurua (Europako Batzordearen deialdiak, MINECOrenak, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, Eusko Jaurlaritzarenak...), hezkuntza arloan zein kooperatibismoaren arloan. Esandakoaz gain, aipatzekoa da 2021-2022 ikasturtean Eusko Jaurlaritzak bere sistemako ikerketatalde kontsolidatutzat hartu duela IKERHEZI taldea, hezkuntza berrikuntzan ardaztua. 2021-2022 ikasturtean, guztira 61 argitalpen kaleratu ditugu. Haien artean, 23 artikulua, 3 liburu eta 6 liburu kapitulu argitaratu ditugu inpaktu altu eta ertaineko aldizkarietan edo argitaletxeetan. Haietatik 24 euskaraz izan dira.


Transferentzian ere proiektu asko egin ditugu 2021-2022 ikasturtean; 61, hain zuzen. Proiektu horiek hezkuntza eta kooperatibismoa jakintza arloetan landu dira. Hezkuntzaren arloan, ekarpena egin dugu etapa guztietan; alegia, HHn, LHn, DBHn, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean. Kooperatibagintzaren esparruan, aldiz, proiektuak garatu dira gizarte berrikuntzan, hezkuntza kooperatiboan eta gizarte eraldaketan, besteak beste.


Esandakoaz gain, HUHEZI Kooperatiba Elkartearen helburua gure komunitatea osatzen dugun pertsona guztien garapen profesionala bermatzea da. Horretarako, pertsonen garapenerako ereduaren proba pilotua egin dugu, harrera plana hobetu dugu, gaikuntza plana eskaini dugu, hizkuntza gaitasunak bultzatzeko eskaintza sendoari eutsi diogu, eta, azkenik, norberaren garapenerako ad hoc eskaerak indartu ditugu. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea espazio esanguratsua izan dadin, eta ikasleak kontuan hartuta bereziki, bizitza unibertsitarioa sustatzen jarraitu dugu. Hala, besteak beste, euskararen inguruko hausnarketa eta motibazioa sortzeko kultura ekimenak bultzatu ditugu, Huhezinema film laburren jaialdiaren 15. edizioa antolatu, eta kirol-eskaintza handitu.



AIPAMEN HISTORIKOA

IKUSPEGI KRONOLOGIKOA





TXOSTEN AKADEMIKOA



2021-2022 ikasturtean, COVID-19aren ondoriozko egoera gainditu ondoren, jarduera hauek garatu ditugu lau graduetan:

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetan, ikasketa plangintza berria inplementatu dugu lau mailetan.
- Ikus-entzunezko Komunikazioko graduan, hirugarren mailan inplementatu dugu ikasketa plangintza berria, bi ibilbiderekin: Ikus-entzunezko Sormena eta Komunikazio Digitala, azken hori DUAL eredu.
- Humanitate Digital Globalak graduan (HDG), bigarren mailan inplementatu dugu. Bigarren mailako ikasleek bidaia egin dute Bruselara.

Datueta etorrita, 2021-2022 ikasturtean, eta askotariko modalitateak kontuan hartuta, graduako 1.245 ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; haietatik 430 lehen mailako ikasle berriak izan dira. Honela daude banatuta ikasleak graduka:

Graduak	1.245 ikasle 812 emakumezko 433 gizonezko
Haur Hezkuntza	332
Lehen Hezkuntza	686
Ikus-entzunezko Komunikazioa	190
Humanitate Digital Globalak (HDG)	37

Graduko curriculum praktikei erreparatuta, guztira 1.191 egonaldi egin dira 2021-2022 ikasturtean, ikastetxe, enpresa edo erakundeetan. Gainera, curriculumetik kanpoko beste 72 praktikaldi ere egin dituzte ikasleek ikasturte honetan.

Mugikortasun programari dagokionez, pandemia aurreko kopuruak berreskuratu ditugu 2021-2022 ikasturtean. 77 ikasle joan dira atzerrira (16 ikasle SICUE programari esker); 85 ikasle Espainiako estatuan egin dituzte praktikak, eta 19k atzerrian. 5 ikasle egin dituzte gradu bukaerako lanak atzerrian. Incoming ikasleei dagokionez, atzerriko 13 ikasle etorri dira gure nazioarteko programetara.

Ikasle berrien orientazio ekintzei dagokionez, ikasturte honetan, lau graduetako ate irekiak egin ditugu Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Bilboko campusetan; modalitate presentziala berreskuratuta, gainera. Guztira, 1.043 parte-hartzaile izan ditugu. Antolatutako onarpen probetan, bestalde, 569 ikasle hartu dute parte.

Graduarekin lotuta dauden beste ekitaldi batzuk ere modu presentzialean egin dira; esaterako, Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia, Euspot Euskarazko Spot Lehiaketa, ikasle egresatuen orla banaketa ekitaldia eta bestelako ekintza publiko batzuk.

UNIBERTSITATE MASTERRAK

2021-2022 ikasturtean, 217 ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eskaini ditugun hiru unibertsitate masterretan. Generoari erreparatuta, ikasle horietatik 122 emakumezkoak izan dira, eta 95, gizonezkoak.

2021-2022 ikasturtean, hiru unibertsitate master hauek eskaini ditugu:

- DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (13. edizioa)
- Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra (Lit) (3. edizioa)
- Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra (MCOOP) (2. edizioa)

Unibertsitate masterrak	217 ikasle 122 emakumezko 95 gizonezko
DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra	172 ikasle
Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra (Lit)	15 ikasle
Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra (MCOOP)	30 ikasle





GRADUONDOKOAK: ADITU TITULUAK ETA ESPEZIALIZAZIO DIPLOMAK

Profesionalei zuzendutako zazpi graduondoko eskaini ditu Fakultateak ikasturte honetan:

- Kooperatibagintzan unibertsitate aditu titulua (14. edizioa)
- Herrigintzaren Berrikuntzan unibertsitate aditu titulua (3. edizioa)
- KoopFabrika: Ekintzailatza Sozial Kooperatiboko eta Ekonomia Sozialeko unibertsitate aditu titulua (6. edizioa)
- Hezkuntza Kooperatiboan unibertsitate aditu titulua (Brasilgo Conexão Mundo programaren barruan) (2. edizioa)
- Prestakuntza Pedagogikoa Gastronomia eta Ostalaritza Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat unibertsitate aditu titulua (Brasilgo Conexão Mundo programaren barruan) (1. edizioa)
- Prestakuntza Pedagogikoa Ingurumen, Jasangarritasun eta Energien Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat unibertsitate aditu titulua (Brasilgo Conexão Mundo programaren barruan) (1. edizioa)
- Chief Learning Officer (CLO), Erakundeetako Ikaskuntzaren Kudeaketan espezializazio diploma (2. edizioa)

Graduondoko horietako batzuk lankidetzan gauzatu ditugu. Hala, Lanbide Heziketako Irakasleen Prestakuntza Pedagogikora bideratutako aditueta, Mondragon Unibertsitateko fakultateak izan dira lankide; Gastronomia eta Ostalaritza eremukoan, Basque Culinary Center; eta, Ingurumen, Jasangarritasun eta Energien eremukoan, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa. Azkenik, CLO espezializazio diploma TeamLabs hezkuntza laborategiarekin batera eskaini dugu.

Graduondokoak: aditu titulua eta espezializazio diploma	174 ikasle 108 emakumezko 66 gizonezko
Kooperatibagintzan aditu titulua	19 ikasle
Herrigintzaren Berrikuntzan aditu titulua	12 ikasle
KoopFabrika: Ekintzailatza Sozial Kooperatiboko eta Ekonomia Sozialeko aditu titulua	54 ikasle
Hezkuntza Kooperatiboan espezializazio diploma	30 ikasle
Prestakuntza Pedagogikoa Gastronomia eta Ostalaritza Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat aditu titulua	15 ikasle
Prestakuntza Pedagogikoa Ingurumen, Jasangarritasun eta Energien Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat aditu titulua	15 ikasle
Chief Learning Officer (CLO), Erakundeetako Ikaskuntzaren Kudeaketan espezializazio diploma	9 ikasle
Euskal Kulturgintzaren Transmisioan (EKT) aditu titulua. (Ez da ikasturte honetako proiektuak egiten aritu dira).	20 ikasle





ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

2021-2022 ikasturtean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak formakuntza eskaini du kooperatibismoaren eta hezkuntza berrikuntzaren jakintza arloetan.

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak formakuntza kooperatiboa eman die kooperatibetako zenbait eragileri: bazkide berriei, organo sozialetako kide berriei eta kooperatiba batzuetako bazkide/langile kolektibo osoei. 2021-2022 ikasturtean, honako kooperatiba hauetan eman du formakuntza: Danobat Taldea, GSR, Ulma Taldea, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Ampo, Lagun Aro, Ulma Embedded Solutions eta askotariko kooperatibetako organo sozialetako kideei. Guztira, 82 formakuntza saio izan ditugu, eta 1.280 partaidek parte hartu dute.

Hezkuntzari dagokionez, hainbat ikastaro labur eskaini, eta ikastetxe eta erakundeek eskatutako hainbat prestakuntza bideratu ditugu. Batetik, ikastaro laburretan, 103 ikasle izan ditugu, honako 5 ikastaro hauetan: «Haurren trebetasun sozialak lantzeko dinamizazio-estrategiak», «Ko-dozentzia bidezko esperientzia gelan», «Erraztailetza lidergo gisa», «Ikasleen irteera-profila hezkuntza eraldatzeko oinarri gisa» eta «Ikasle etorri berrien murgiltzea». Bestetik, ikastetxe eta erakundeetatik etorritako 60 eskaera ingururi erantzun diegu. Guztira, 4.138 parte-hartzaile bildu ditugu ekintza horietan. Eskaerak hainbat gairekin lotuta egon dira; esaterako:

- Kulturartekotasuna eta aldaketa sozialak: kulturarteko hezkuntza, euskara eta kulturartekotasuna, hezkidetza eta genero berdintasuna...
- Hizkuntza proiektua eta eleaniztasuna: hizkuntza proiektuaren diseinua, hizkuntzaren ebaluazioa, irakurriaren ulermena eta irakurzaletasuna, hizkuntzen trataera integratua eta integrala, gelako elkarrekintza, ahozkototasuna, ingelesaren irakaskuntza...
- Zientzia, teknologia eta digitalizazioa: ikuspegi teknopedagogikoa, gidaritza digitala, diziplinartekotasuna...
- Hezkuntza berrikuntzaren alderdi metodologikoak: proiektu bidezko ikaskuntza, ebaluazioa, konpetentziak, kodozentzia edo irakaskuntza partekatua, testuinguru hezitzaileak eta irakaslearen rola...

Prestakuntza horien bidez, zentro eta etapen berrikuntzan eragiteko prozesu eta estrategietan sakondu dugu.





IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

2021-2022 ikasturtean, iazko ikasturtearekin alderatuz, % 6,24ko igoera izan da ikerketa eta transferentzia jardueratik etorritako diru sarreretan.

Hurrengo lerrootan bilduko ditugu ikasturtean zehar egindako 24 ikerketa proiektu eta 61 transferentzia ekimenetatik aipagarrienak.

IKERKETA

2021-2022 ikasturteko ikerketa jarduna hezkuntzan eta kooperatibismoan, eta humanitateen eremuetan kokatu da. Lan esparru horietan, honako lan ildo hauek izan dira nagusi:

- Hizkuntzak eta kulturak eskolan eta gizartean
- Gizarte zientziak, erronkak eta arrakalak
- STEM eta digitalizazioa
- Hezkuntza prozesuak
- Kooperatibismoa, autoeraketa eta giza garapen iraunkorra
- Humanitateak eta gizarte berrikuntza

Hona hemen 2021-2022 ikasturtean deialdi konpetitiboetatik zein hitzarmen bidezkoetatik eratorritako ikerketa aipagarrienak:

Proiektua	Erakundea	Deskribapena
<i>Personalised digital learning paths to foster social-cooperative entrepreneurship (MyDigiCoop)</i>	Europa	Unibertsitateko profesionalen kompetentziak eta tresnak aberastu nahi dira haien ikasleen ekintzailtza sozial kooperatiboa sustatzeko.
<i>Unfolding Collaborative Online International Learning Didactics (UCOILD)</i>	Europa	Graduko ikasleen bestelako nazioartekotze esperientziak sustatu nahi dira.
<i>Engagement of Non-Traditional Students in Professional in professional Higher Education - InclusiPHE</i>	Europa	Ikasle guztien parte-hartzea sustatzeko esku-hartze multzoak sortuz, ekarpena egin nahi du unibertsitatea ingurune inklusiboago bat izaten laguntzeko.
El potencial de la alfabetización específica del área para fomentar el deeper learning en Educación Secundaria dentro del marco de Pluriliteracies Teaching for Learning (PID2019-111655RA-I00) (ALPHA)	Espainiako Hezkuntza Ministerioa	DBHko ikasleen ikaskuntza sakona bultzatu nahi da arloko alfabetatzean eraginez.
#FP21. Aprendizaje basado en retos para una industria 4.0 abierta	Espainiako Hezkuntza Ministerioa	Erronka bidezko ikaskuntzan oinarritutako ekimenak sustatu nahi dira lanbide heziketak zentroetan.
<i>Irakaslegai gazteak euskararen eragile? Nondik eta nora</i>	Eusko Jaurilaritza	Etorkizuneko irakasleek euskararen sustapenean duten rola du aztergai proiektu honek.
Hezkuntza eta prestakuntza kooperatiboen bazkideengan eta haien enpresa kooperatibetan dituzten ondorioak	Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (EKGK)	Proiektu honen helburua hezkuntza eta prestakuntza kooperatiboen bazkideengan eta kooperatibetan dituzten ondorioak aztertzea da.



Proiektua	Erakundea	Deskribapena
Arantzazulab ikerketa: demokrazia	Arantzazu Gaur Fundazioa	Gizarteari buruzko hausnarketaren barruan, demokraziaren kontzeptualizazioan sakontzen du egitasmo honek.
Be[di]girada - Gizaki digitalaren eta digitalizazio gizatiarraren lanketa hezkuntzan integratzeko proposamena	Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)	Hezkuntzaren eta digitalizazioaren arteko loturan sakondu nahi da, horretarako lanketa esanguratsuak sustatuz.
Parte hartze kultura eta garapen komunitarioa sustatzen eskola eta herria denontzako izan daitezen	Gipuzkoako Foru Aldundia	Ikerketa ekintza parte-hartzailearen bidez, ikasleengan inpaktu handia duten momentuetan eragin nahi da, ikasle guztiei kalitatezko erantzun bat emateko eta edozein motatako bazterketak murrizteko.
Garapen jasangarrirako helburuen (GJH) gobernantza kooperatibetan: erantzunkidetasuna eta parte-hartze integrala	Gipuzkoako Foru Aldundia	Proiektu honen helburu nagusia izan da Arrasateko Kooperatiba Esperientziako (AKE) kooperatibei laguntzea GJHak kooperatiben proiektu sozioenpresarialaren erdigunera ekartzen, parte-hartze integralaren bidetik, erantzunkidetasunean oinarrituriko gobernantza ereduak sakonduz.
STEMotiv: Adimen artifiziala eta datu adimenaren bidez ikasleen STEM motibazioa piztu, Gipuzkoako ehun enpresarial zientifiko-teknologikoa indartzeko tresna	Gipuzkoako Foru Aldundia	Proiektuaren xede nagusia adimen artifiziala eta datu adimena baliatuz ikasleen STEM motibazioa piztea da.
LanHezi: Enpresak eta Lanbide Heziketako ikastetxeak lankidetzan, Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoan eta etorkizuneko enpleguaren kalitatean eragiteko ezagutzaren sorkuntza	Gipuzkoako Foru Aldundia	Enpresa eta ikastetxeetako beharrak identifikatu, eta, hortik abiatuta, pertsonen, ikasleen eta langileen gaitasunak garatu nahi dira, norberaren garapenerako ereduak ezarri eta kultura eraikiz.
ERAGIN: Hezkuntza, kalitatezko enplegurako eta lantokiak eta enplegua eraldatzeko plataforma	Gipuzkoako Foru Aldundia	Proiektuaren helburu nagusia hezkuntza erakundeetan kalitatezko enplegua eta lantokia eta enplegua eraldatzeko ekimenak sustatzea da.
Pertsona erantzulea enpresa kooperatiboan: Erakunde-faktoreen identifikazioa eta garapena	Gipuzkoako Foru Aldundia	Ikerketa ekintza egitasmo baten bidez, kooperatibetan erantzunkidetasunaren kultura hedatu bat garatzeko esku-hartze proposamenak sustatu nahi ditu proiektuak.
AUZOLANGIN(L)TZA. XXI. mendeko Gipuzkoaren eraikuntzan auzolana iraganeko kontua ala etorkizuneko giltza? Tolosaldean saiakera.	Gipuzkoako Foru Aldundia	Tolomendirekin eta Eusko Ikaskuntzarekin batera garatutako proiektu honetan, auzolana da aztergai eta esku-hartzerako oinarri.
Berrikuntza Gipuzkoako Eskoletan	Gipuzkoako Foru Aldundia	Gipuzkoako eskoletan berrikuntza egitasmoak ikertzeko proiektua.

Ikerketa jardunarekin erabat lotuta, aipatzekoa da 2021-2022 ikasturtean Eusko Jaurlaritzak bere sistemako ikerketa talde kontsolidatutzat hartu duela IKERHEZI taldea, zeina hezkuntza berrikuntzan ardaztuta baitago.



TRANSFERENTZIA

Transferentzia eta aholkularitza proiektuei dagokienez, 61 proiektu gauzatu ditugu Fakultatean, hezkuntza eta kooperatibismoa jakintza arloetan.

Hezkuntzaren esparruan, ekarpena egin dugu etapa guztietan; alegia, HHn, LHn, DBHn, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean. Aholkularitza eta transferentzia proiektuek hezkuntza berrikuntza izan dute oinarri, eta askotariko gaiak jorratu dituzte: ikaste-irakaste metodologiak, eraldaketa digitala, hizkuntzen trataera integratua, ikaskuntza sakona, parte-hartzea, hezkidetzak, ebaluazioa edo konpetentzia-markoa, besteak beste. Are gehiago, ikastetxeen eremutik harago, hezkuntzaren eta komunitatearen arteko harremana jorratu dugu hainbat transferentzia ekimenetan.

Kooperatibagintzaren esparruan, askotariko transferentzia ekimenak garatu ditugu: gizarte berrikuntzaren arloko aholkularitza, kooperatibentzako formakuntza kooperatiboaren diseinua eta inplementazioa, gizarte eraldaketaren inguruko hausnarketa prozesua enpresa kooperatiboetan, edo bazkide berrientzako eta organo sozialentzako formakuntza kooperatiboa. Halaber, aipatzekoa da garapen jasangarrirako helburuekin eta ekintzailatza sozial-kooperatiboarekin lotuta egin dugun lana.

Hona hemen kooperatibismoaren inguruan aipagarriak diren aholkularitza eta transferentzia ekimen batzuk:

Proiektua	Erakundea	Deskribapena
<i>Strengthening educational and cooperative development ties between The Evolution Institute and MONDRAGON</i>	Evolution institute	Izaera eta kultura kooperatiboak sustatzeko ekimenak
"Ordiziako Hezkuntza Komunitatea Saretuz" prozesua garatzeko proiektua	Ordiziako Udala	Ordiziako hezkuntza komunitatea erantzunkidetasunez saretzea sustatzeko ekimena
Euskara eta Kulturartekotasuna Zestoan	Zestoako Udala	Euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko ekimena
Euskararen erabilera eta kulturartekotasuna Zaldibiako hezkuntza komunitatean	Lardizabal Herri Eskola	Euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko ekimena
Errenteriako hezkuntza-komunitatea saretuz, erantzunkidetasunean sakontzen prozesua garatzeko proiektua	Errenteriako Udala	Errenterian hezkuntza komunitatearen erantzunkidetasunean sakontzeko prozesua
Irakurketa planetik hizkuntzen trataera bateratu eta integralera	MINAS BHI	Hizkuntzen trataera bateratu eta integrala sustatzeko ekimena
Hizkuntza proiektua; Irakurriaren ulermena; Ikasgaiak ingelesez	Kristau Eskolak	Hizkuntza proiektuak jorratzeko, irakurriaren ulermena sustatzeko eta ikasgaiak ingelesez modu esanguratsuan emateko ekimenak
Hizkuntza Proiektuaren garapena ikasleen hizkuntza erabileran eta kalitatean eragiteko	Euskal Herriko Ikastolen Elkarte (EHI)	Hizkuntza proiektuaren garapena hainbat ikastolatan
Hizkuntza proiektuaren inplementazioa	Nafarroako Gobernua	Hizkuntza proiektuak ikastetxeetan inplementatzeko transferentzia ekimenak



Proiektua	Erakundea	Deskribapena
Ebaluazio sistemaren birdiseinua eta eraikitze prozesua	Urkide	Ebaluazioaren oinarriak eta tresnen lanketa
ETHAZI Berrikuntza-ereduaren ebaluazioa EAEko Lanbide Hezietako Zentroetan	TKNIKA	Lanbide heziketan ETHAZI berrikuntza ereduen ebaluazioa egiteko ekimena
Bertsozale Elkarteko bertsolari-irakasleen prestakuntza gogoetatsua gelako praktiken analisetatik abiatuta	Bertsozale Elkartea	Bertsolari-irakasleen prestakuntza gogoetatsua
Ordizia, hiri hezitzailea proiektuaren etapa berrirako ildoak marrazteko eta hezkuntza eragileen elkarlana eta harremana sutsatzeko egitura eta baldintzeko lantzeko zerbitzua	Ordiziako Udala	Hiri hezitzaile izaera indartzeko prozesua
Hezkuntza eta Hizkuntza proiektuen diseinua, inplementazioa eta jarraipena	Larrun Lizeoa	Ahozko konpetentzia sustatzeko metodologiaren lanketa
Konpetentziak ardatz	La Inmaculada	Konpetentzia markoan oinarritutako hezkuntza berrikuntza sustatzeko ekimena
<i>"Governance of cooperative enterprises under pressure: A multilevel and holistic approach" (2019-2022)</i>	Saint Mary's University	Kooperatiben gobernantza hobetzeko ekimena
Euskararen estatusa	Euskaltzaindia	Euskararen egoera aztertze eta horretan eragiteko ekimena
Debagoienako GB Plataforma: NORAGUNEaren koordinazioa eta elikatzea	Gizabidea Fundazioa	Debagoiena 2030 egitasmoaren barruan, koordinazio eta elikatze lanak NORAGUNEan
Berba-lapiko. Garapen metodologikoa ahozko konpetentzietan aurrera egiteko.	Soziolinguistika Klusterra	Ahozko konpetentzia sustatzeko garapen metodologikoa bilatzen duen transferentzia ekimena
Kodozentzia LH eta DBHn	Bihotz Gaztea ikastola	Kodozentzia inplementatzeko ekimena
Lurralde eskola kooperatiboa martxan jartzeko zerbitzua	Gipuzkoako Foru Aldundia	Lurralde eskola kooperatiboa martxan jartzeko ekimena
MGEPEko masterreko ikasleen profilaren azterketa	MGEP	Masterreko ikasleen profilaren azterketa eta profil hori sustatzeko estrategien definizioa
KoopFabrika 2021-2022 programa	KoopFabrika	Ekintzailatza kooperatiboa sustatzeko ekimena



ARGITALPENAK ETA ZABALKUNDEA

2021-2022 ikasturtean, guztira 61 argitalpen kaleratu ditugu. Haien artean, 23 artikulua, 3 liburu eta 6 liburu kapitulu argitaratu ditugu inpaktu altuko eta ertaineko aldizkarietan edo argitaletxeetan. Argitalpenen % 40 inguru euskaraz kaleratu ditugu.

Argitalpen zientifikoak	61
Artikulu zientifikoak	23
JCR, SJR, CiteScore, CIRC A edo B, CARHUS+ A edo B	10
CIRC C edo D, CARHUS+, INRECS, LATINDEX, MIAR...	13
Liburuak	6
SPI	3
Liburu kapituluak	20
SPI	17
Kongresu eta jardunaldietako komunikazioak	8
Kongresu aktak (argitaratuta)	1
Argitaratu gabe	7
Dibulgaziorako argitalpenak	2
Tesiak	2
Euskarazko argitalpenak	24
eBiltegian	11
Garapen jasangarriko helburuekin lotuta 	6

Argitalpenez gain, ikasturte honetan, ikerketa proiektuekin lotutako 31 ekitaldi antolatu ditugu. Gainera, ikerketari buruzko 16 prestakuntza mintegi egin ditugu ikasturtean zehar.

HIRUGARREN ZIKLOA: DOKTOREGO PROGRAMA

2021-2022 ikasturtean, 24 lagun matrikulatu dira Universitat de Vic - Central de Catalunya (UVic-UCC) unibertsitatearekin batera eskaintzen dugun Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego-programan. Ikasturte honetan, gainera, Kataluniako unibertsitatearekin batera, doktorego programaren 9. jardunaldia egin dugu.

Bestalde, 2021-2022 ikasturtean, lehendabizi, hiru doktoregaik oinarrizko ikerketa prestakuntza egin dute doktorego programan. Aipatzekoa da doktoregaiek hezkuntzarekin lotutako askotariko ikerketa proiektuak garatzen dihardutela; besteak beste, STEM hezkuntza, digitalizazioa, berrikuntza metodologikoa, kulturartekotasuna, hezkuntza duala edo hizkuntzen trataera eskolan. Azkenik, aipa dezagun bi doktoregaiek egin dutela tesiaren defentsa 2021-2022 ikasturtean.

EGOERA EKONOMIKO- FINANTZARIOA



Arlo ekonomiko-finantzariora etorrita, 2021-2022 ikasturteko sarrerak 11.913.000 eurokoak izan dira, eta gastuak, 11.805.000 eurokoak. Beraz, aldeko emaitza 108.000 eurokoa izan da.

Ikasturte honetan egindako inbertsioak 151.000 eurokoak izan dira, eta urteroko ohiko inbertsioetara bideratu dira. Finantzaketa Mondragon Taldeko FEpletatik, eta berezko funtsetatik edo funts propioetatik etorri da.

Balantzeari dagokionez, egoeraren balantzearen aktibo eta pasiboa 14.345.000 eurokoa zen 2022ko abuztuaren 31n.



KUDEAKETA ORGANOAK



ANTOLAKETA EGITURA

DEKANOA: Nagore Ipiña

ZUZENDARITZA KONTSEILUA

Nagore Ipiña: Fakultateko dekanoa

Aitziber Arregi: Zuzendari akademikoa

Iñaki Larrea: Ikerketa eta Transferentzia
arloko zuzendaria

Ainara Artetxe: Hezkuntza Berrikuntzaren
arloko zuzendaria

Goio Arana: Komunikazioaren arloko
zuzendaria

Ainara Udaondo: LANKI
Kooperatibismoaren Ikertegiko zuzendaria

Karmele Perez: Profesionalen
Prestakuntzako zuzendaria

Ainhoa Leturiaga: Administrazio eta
Finantzaketako zuzendaria

KONTSEILU ERREKTOREA

Amaia Agirre: Lehendakaria

Nekane Arratibel: Lehendakariordea

Nagore Iñurrategi: Idazkaria

KIDEAK:

Oihana Otaduy

Igor Ortega

Miren Erdozia

Javier Marcos

Jose Ramon Zubizarreta

Amaia Macias

Carmen Espinoza

Nora Garcia

Ane Urresti

FAKULTATEKO LANGILEAK



Hau guztia ez litzateke posible izango proiektu honetan inplikatu eta parte hartu duten lagun hauen guztien konpromiso sendorik gabe:

- Aginaga Inza, Itsaso
- Agirre Garcia, Nerea
- Alberdi Ruiz De Alegria, Amaia
- Aldabaldetrekuz Gonzalez De Txabarri, Rita
- Alonso Amezuza, Idurre
- Altuna Morcillo, Saioa
- Alvarez Huerta, Paula
- Anton Ustaritz, Eneko
- Apraiz Ansola, Mari Karmen
- Apraiz Larruzea, Itxaso
- Arana Arrieta, Goio
- Arebitorre Landeta, Eunate
- Arias Hermoso, Roberto
- Aristi Narbaiza, Jon
- Arratibel Insausti, Nekane
- Arregi Iribecampas, Aitziber
- Arregi Landa, Itziar
- Arregi Murguiondo, Xabier
- Arrese Errasti, Gotzone
- Arriaran Olalde, Iñigo
- Arroyo Sagasta, Amaia
- Artetxe Aranaz, Ainara
- Astigarraga Agirre, Idoia
- Azkarate Iturbe, Oxel
- Azkue Lete, Iker
- Azpeitia Eizagirre, Agurtzane
- Barandiaran Arteaga, Alexander
- Barnes Julia, Diana
- Barquin Lopez, Amelia
- Baztan Miguel, Asier
- Beitia Sasiain, Loredi
- Belategi Unzueta, Onintza
- Bergara Eguren, Jokin
- Biain Bidarte, Amaia
- Bidegain Aire, Eneko
- Bikuña Munduate, Agurtzane
- Bilbao Eraña, Ainara
- Bonilla Bermejo, Mari Carmen
- Caballero Ramirez, Izaskun
- Cabezon Vito, Marina
- Carmona Igartua, Unai
- Carpintero Martin, Ana
- De La Iglesia Gamboa, Egoitz
- Echaburu Osa, Mikel
- Egaña Osa, Txema
- Egizabal Ollokiegi, Diego
- Eizagirre, Andoni
- Elortegi Garcia, Naroa
- Elorza Gogenola, Eztizen
- Elustondo Astigarraga, Izar
- Errazkin Vicente, Aitor
- Escandon Lucea, Eunate
- Esquibel Montero, Nagore
- Etxebeste Liras, Onintza
- Fallon Mary, Sinead
- Flores Puga, Beñat
- Galindez Nafarrate, Edurne
- Gallardo Bolaños, Entxo
- Galparsoro Garcia, Rosa Maria
- Garcia Fernandez, Letizia
- Garitano Laka, Paulo
- Garro Larrañaga, Eneritz
- Gastañazatorre Gorrotxategui, Idurre
- Goikoetxea Agirre, Nekane
- Gonzalez Arenaza, Ainhoa
- Gonzalez Atucha Patricia, Aranzazu
- Gorospe Arzubia, Ane
- Gorroño Viteri, Naiara
- Gorrotxategi Alberdi, Julene
- Gostin Elorza, Andres
- Higuero Fuentes, Andrea
- Ibarrondo Del Canto, Asier
- Igoa Eriz, Xabier
- Imaz Aguirre, Ainara
- Imaz Alias, Oier
- Imaz Ganzarain, Itziar
- Iñurrategi Irizar, Nagore
- Ipiña Larrañaga, Nagore
- Iribas Pardo, Haritz
- Irizar Mezo, Asier
- Jimenez Arrieta, Olaia
- Juaristi Olaechea, Itxaro
- Kanpandegi Berrotaran, Aritz
- Kareaga Irazabalbeitia, Ariane
- Kortabarria Urain, Iñigo
- Lahidalga Baglietto, Idoia
- Laparra Guillen, Iker
- Larrañaga Elorza, Ainhoa
- Larrea Arana, Mireia
- Larrea Hermida, Iñaki
- Larreategi Alday, Ane
- Lasa Zuzuarregi, Gurutze
- Laskurain Bidaburu, Leire
- Lauzurika Arrondo, Asier
- Lersundi Perez, Amaia
- Leturiaga Letona, Ainhoa
- Lezeta Ruiz de Alegria, Ion
- Lopez Salas, Nerea
- Loyola Idiaquez, Aitzol
- Madinabeitia Medrano, Monika
- Maia Sadaba, Markel
- Martinez de Lagos Menique, Aitziber
- Martinez Gorrotxategi, Agurtzane
- Mata Oyanguren, Oihana
- Mentxakatorre Odriozola, Jon
- Mongelos Garcia, Arantza
- Motrico San Emeterio, Paula
- Olea Garramiola, Lur
- Ormaetxea Jauregi, Unai
- Ortega Sunsundegi, Igor
- Otaduy Marauri, Oihana
- Ozaeta Elorza, Arantza
- Partearrayo Olaetxea, Maite
- Pascua Martin, Cristina
- Pavon Arrizabalaga, Amaia
- Perez Lizarralde, Karmele
- Permach Martin, Nerea
- Portilla Zaldibar, Unai
- Quintas Quintas, Marta
- Rodriguez Garitano, Jone
- Rozas Elizalde, Ixiar
- Ruiz De Azua Galdos, Edurne
- Ruiz De Azua Larrañaga, Nerea
- Sagardia Iturria, Irati
- Sagasta Nafarrate, Ainhoa
- Salegi Arruti, Eider
- Salterain Alberdi, Igor
- Sanchez Murueta, Aritz
- Santa Cruz Elorza, Sirats
- Sarasua Maritxalar, Jon
- Sarobe Egiguren, Aitziber
- Solis Uitz, Mattin
- Terradillos Irastorza, Itziar
- Toledo Delgado, Usoa
- Torrealday Gallarreta, Amaia
- Torres Lete, Maialen
- Udaondo Alberdi, Ainara
- Uriarte Gurtubai, Ibai
- Uriarte Iñurrategi, Xabier
- Uriarte Zabala, Leire
- Urizar Zugazagoitia, Ane
- Urkia Guridi, Iraia
- Vitoria Gallastegui, Jose Ramon
- Zabala Ibarra, Ane Miren
- Zabaleta Mendikute, Garazi
- Zarate Herrero, Leire
- Zarrabeitia Salterain, Endika
- Zuberogoitia Espilla, Aitor
- Zubia Zubizarreta, Nerea
- Zubizarreta Pagaldai, Ane
- Zufiaurre Astigarraga, Mirene



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**

Dorleta,z/g
20540 ESKORIATZA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu

Otalora 31
20550 ARETXABALETA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 31 40
harrera.huhezi@mondragon.edu

Olagorta kalea 26 (Zorrotzaurre)
48014 BILBO
Bizkaia
Tel. 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu



www.mondragon.edu/huhezi



ENTITATE LAGUNTZAILEA



LABORAL
kutxa